



## Baratze ekologikoa

Baratze ekologikoa ekosistema zaintzen eta inguruneko biodibertsitatea hobetzen laguntzen du. Naturan, giza jarduera jasangarria barne hartzen duen ekoizpen modua da, produktu, pestizida eta ongarri kimikoei uko egiten diena. Landare ezberdinen jatorria eta natura ere kontutan izaten da, ez daitezen transgenikoak izan ezta hazi hibridoak ere.

Baratze ekologikoa bertako inguruneko kultur egituraren murgilduta dago eta bertako paisaiaren partaide da. Metereologiaren, toki baten orografiaren baita bertako jendearen sinismenen eta ohituren arabera ere eratzen da. Euskal Herriari dagokionez, Baserria da natur eta kulturaren arteko lotura adierazten duena, gure "kultur paisaia" sortuz.



## Baratzea apirilean

Landaketa errez batekin hasteko, letxugarekin hasi gaitezke. Ur asko behar du, batez ere udarako egun beroetan, hortik datorkio *uraza* izena (*uretako aza*), baina eguzki zalea ere bada. Hala ere, letxuga landatzen dugun lurra komeni da hezea egotea. Letxuga nahiko azkar heltzen denez, ez da komeni aldi batean ugari jartzea, hazi ahala eta jan ahala landatu. Kontutan izan, letxuga hazten denean tamaina dezentea hartzen duela, beraz batetik bestera toki piska bat uztea komeni da. Lekadunak egon diren tokian (bainak, indabak, babarrunak...) landatzea egokia litzateke, hauek lurlean utzitako nitrogenoa xurgatzeko.

Barazkiez eta elikagaiez gain, belar usaindunak edo landare aromatikoak ere baratzearen parte dira, etxerako ukenduak, xaboiak, infusio edo sendagai ezberdinak egin ahal izateko. Eta horretaz gain, baratzean bertan ere izurriteen aurkako zaintzaile naturalak dira. Igartubeitin esaterako izpilikua daukagu, lehorreko landarea. Izpilikua lagungarri izango zaigu txingurriak uxatzeko, baita amona mantangorria edota polinizatzaileak erakartzeko ere. Lasaigarria, hanturaren aurkakoa (antiinflamatorio), digestiboa, antiseptikoa, zikatrizatzailea... osasun aldetik erabilera ugari ditu. Erromeroa ere badaukagu, jatorriz mediterraneoko landarea. Lore urdinxka bat ematen du, ia urte guztia irauten duena. Erromeroak halako esentzia berezi bat dauka eta baratzean txingurriak erakartzen ditu, beste barazki edo frutetara joatea eragotziz. Eta aldi berean, antiseptikoa, hidratantea, digestiboa eta diuretikoak ere bada.



## Ingurunea

Igartubeiti inguruan, lore zuri txiki ikusgarriak janzen lehena basarana izan da, "*basoko arana*". Askok eta askok irailean ematen duen fruituagatik ezagutuko duzue, patxarana egiteko erabiltzen baita. Gaur egun mendi aldera joan beharko dugu aurkitu nahi badugu, baina antzina heskai natural gisara erabiltzen zuten baserri inguruetan. Gainera erlezaintzarako ere ezin hobea da, bere lore eta polena dela medio.

Loraldiarekin batera, hegaztiak ere udaberriaren etorrera iragartzen digute. Hara hor horietako bat, kukua, udaberriko lehen erromako zubi edo ortzadarrarekin etortzen dena, eta orduan hasten omen da kantuan. Gainera, bere zorte onaren adierazle, kukua kantuan lehenaldiz entzuterakoan, txanponen bat edo beste aldean eramateak zorte ona ekartzen omen du.





## Baratzearen eta ingurunearen zaintza Jakoba Errekondorekin kolaborazioan:

- Baratzean landatuta ditugun landareak estalkiren batekin babesten jarraitu badaezpada, azken izozteren bat etorritz gero...
- Loreontzietan ditugun landareak babesera eraman, estalpe azpiren batera.
- Eguraldia epeldu duela ikusiz gero, landareak babesetik atera eguzkitara.
- Landatu gabeko lurak simaurrez estali, beldurrik gabe.
- Belazeak eta soroak ongarrizko garaia da, beldurrik gabe gainera.
- Sutako hautsa, kare hautsa edo hondarra gehitu lurrari, harrotzeko. Aurretik ongarrria bota badiogu utzi pare bat aste gutxienez eta gero zabaldu karea.
- Orbel garaia amaitzean da. Bildu konposta egiteko, azpitarako...
- Hazitarako utzi ditugun fruituak ongi zabaldu eta lehortzen utzi.
- Udaran ernetu diren erraboiak landatu:dalia, kana,begonia...
- Inausketa eta txertaketak egiteko azken txanpa.
- Hostoa galtzen duten zuhaitz, zuhaixka eta abar landatzen hasi. Izotza baldin bada ez egin landaketarik.
- Fruta arboletan ustelduta geratu diren fruituak kendu eta erre. Bestela neguan gaitza zuhaitzean geratzen da eta udaberrian erasoko dio.



**ONGI ETORRI IGARTUBEITIKO  
BARATZE EKOLOGIKORA**